



EBAZPENA KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARIARENA, UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASLEAK ESKOLATZEKO IKASKETA-BEKA ETA -LAGUNTZEI BURUZKO 2020-2021 IKASTURTEKO EBAZPENAK ALDATZEN DITUENA

Hezkuntza sailburuaren 2020ko irailaren 30eko Aginduaren bidez, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko 2020-2021 ikasturterako ikasketa-beka eta laguntzetarako deialdia egin zen.

Deialdi horren 34. artikuluan ezarritako ebazpen-prozedurarekin bat etorriz, proposamenak aztertu ondoren, eta deialdian ezarritako irizpideen arabera, Kudeaketa Ekonomikoko zuzendariaren 2020ko abenduaren 30eko, 2021eko otsailaren 16ko, martxoaren 29ko eta maiatzaren 27ko ebazpenak eman ziren.

Deialdiaren 34.6 eta 38. artikuluen arabera, eta jantokiko osagaia emateko kontuan hartutako baldintzak aldatu direla kontuan hartuta, ebazpen horiek aldatu egiten dira.

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 2020ko abenduaren 30eko, 2021eko otsailaren 16ko, martxoaren 29ko eta maiatzaren 27ko Ebazpenak aldatzea, Eranskinen zerrendatutako ikasleen jantoki-osagaiari dagozkion zenbatekoei dagokienez, eta 2020-2021 ikasturtean jantokira benetan joan diren denborara egokitzea.

Bigarrena.- 122.895,20 € ordaintzea Eranskinen zerrendatutako ikasleei, aldaketaren ondoren sortutako aldeengatik.

RESOLUCIÓN DE LA DIRECTORA DE GESTIÓN ECONÓMICA, DE MODIFICACIÓN DE LAS RESOLUCIONES DE BECAS Y AYUDAS AL ESTUDIO PARA LA ESCOLARIZACIÓN DE ESTUDIANTES DE NIVELES NO UNIVERSITARIOS PARA EL CURSO ACADÉMICO 2020-2021.

Por Orden de 30 de septiembre de 2020 de la Consejera de Educación, se daban normas y se abría la Convocatoria de becas y ayudas al Estudio para la escolarización de estudiantes de niveles no universitarios para el curso académico 2020-2021,

De acuerdo con el procedimiento de resolución establecido en el artículo 34 de la citada convocatoria, estudiadas las propuestas, y conforme a los criterios establecidos en la Convocatoria, se realizaron las resoluciones de 30 de diciembre de 2020, 16 de febrero, 29 de marzo y 27 de mayo de 2021, de la Directora de Gestión Económica

De acuerdo con los artículos 34.6 y 38 de la convocatoria, y teniendo en cuenta la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión del componente de comedor, se procede a la modificación de dichas resoluciones

RESUELVO:

Primero.- Modificar las Resoluciones de 30 de diciembre de 2020, de 16 de febrero, 29 de marzo y 27 de mayo de 2021 en relación a los importes correspondientes al componente de comedor del alumnado relacionado en el Anexo, ajustándolos al periodo efectivo de asistencia al comedor durante el curso 2020-2021.

Segundo.- Abonar 122.895,20 € al alumnado relacionado en el Anexo, por las diferencias generadas tras la modificación.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 9a.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ANE URKIOLA ALUSTIZA HEZKUNTZA SAILA
KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARIA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN